

# Nafarrokaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1991ko Abenduak 6

Zubian barne

## Denondarako zokoa



BINGEN AMADOZ

Ez da aise asmatzen, jaioberri den zerbaiten berri ematerako orduan, nola izanen den iragartzea, eta zein bideak hartuko dituen, edo zer eskainiko duen... Berria den guztiak ez bait dauka bere geroaren berri, ez bait du ezagutzen bere haurtzaroa, are gutxiago ondorengoa. Gaur jaio den gehigarri honek baina, baditu asmoak eta gogoak. Nafarroan sortua, nafarrendako egina, hemengo gaiak ditu ikusmiran eta buruan. Astero astero, hori bai, lurralde honetako bazterrak ukitzen saiatuko da, bertako biztanleen berri ematen. Harrokeririk gabe, zintzo, baina zuzen. Eta horretarako lan eta ahaleginak ez dira faltako, indarrak ez bait dira gutxi. Geroak erranen.

**B**atzuk sortzaile izateko duten trebetasunak betidanik liluratu nau. Musika, pintura, irudigintza edota bestelako arte-lana egiteko gauza direnak balio handiko jendea da nerretzat.

Modu berean, literaturgile edota horren sakon eta sentiberak izan ohi diren olerkariak ere majia-mundu zoragarri batetan mugitzen direla ematen dit.

Egia da bestalde, gure errelitatea hurbiletik kanpo imajinatzen dugun guztia misterioitsu eta ametsagarri bihurtzen zaigula errez. Zenbat eta urrunago egon, are lainotseago, baina baina politago ere egiten da, gure goiko kaska honetan fabrikatzera ausartzen garena.

Horrexegatik, beldur naiz ez ote den idazleenganako daukadan lilura hori pittin bat behintzat ezabatuko, gaur bezalakoan, bata bestearen atzetik hitzak paperetan jartzeari hurbilketa bilatzen badiot.

Norberaren ahalmenak dituen mugetaz jabe izanik ere, behin eta berriz hainbat ezintasun eta alferkerisumatu dituen buru-barneko hau gauza izanen da beharbada lilura batekin hautsi eta gozamen berriari heltzeko.

Denbora izan dadila epaile.



### Barnean

#### LAMINACIONES



Siderurgiaren egoera larriak kezka ugari sortu du Bidasoan /IV-V

#### OLASAGARRE



Arbizuarraren lehen poema liburua aurkeztu da Durangoan /VIII

## Gure Aukerak

### ANTZERKIA



**El Gran Wyoming eta Reverendo** Madrileko taldeak gaur, bihar eta etzi eskeiniko du 'En la flor de la vida' izeneko obra Nafarroako Antzerki Eskolako lokaletan. Gaur eta biharko saioa gabeko 10etan izango da, eta igandekoa, berriz, arratsaldeko zortzietan. 'Show-man' bikain honek prestatzen dituen lanak ikusgarriak izaten dira, eta gaurkoa ez da gutxiagorik izango.

### ERAKUSKETAK



**Francisco Javier Labarga** ar gazkilariaren lanak ikusgai daude Zapateria kaleko Erakusketa aretoan igandera arte, abenduak 8. Artista honen ibilaldiak agertzen dira argazkietan, batez ere Txinan ikusitakoak, bertan denboraldi luzeak eman bait ditu.

**Inocencio Garzia Asarta** pintorearen erakusketa Tuterako Castel Ruiz Kultur Etxean ikus daiteke heldu den asteko igandera arte, abenduak 15. Erretratoak dira, nagusiki, artistak egin zituen lanak, baina paisai kostunbristak ere margotu izan zituen, gehienak kostaldeko gaiak erabiliz.

**Kuberaren** paisaiak daude ikusgai abenduaren 12ra arte Elizonoan. Arizkunenea Kultur Etxean. 13tik aintzinerara Valeriano Lezeta elizondotarraren lanak izanen dira urtarri-lera arte.

**Maite Azpiri** pintore mexikarraren


## Arribe ta Atallo, urre gorritz bataio

Araitz-Beteluko Euskara Batzordeak aste honetan antolatu duen Aste Kulturalari bukaera emateko, Euskararen Eguna izanen da heldu den igandean Atallun, kalejira, bertso-lari, bazkaria eta trikitilariekin. Hori aitzakizat hartuta, parada ederra duzue Nafarroako zokorik eder eta ezezagunenetakoa bisitatzeko.

Araitz, Arribe, Atallo, Azkarate, Gaintza, Intza, Uztegi eta Betelu herriek osatzen dute bailara, azken honen 1694an bereiztu bazen ere. Larraun eta Gipuzkoa artean kokatuta, paraje ederrean, Mailoak (Aralarko magala) ditu zaindari izugarria.

Nekez aurkituko dugu Nafarroan naturarekin harreman handiago duen zonalderik, bertako bizimodua nekazaritza eta artzaintzarekin bereziki lotuta izan bait da beti. Horrela, bai Aralarrean nola inguruko mendietara bisitaldia ezinbestekoa da. Horien artean, aipatu Balerdi tontorra, bai Gaintza nola Azkarate edota Uztegitik egin daitekeena. 1.185 metrokin, ikusmirarik paregabea: Aralar osoa, Gupuzkoa, Leitzarain, Larraun...

Orobat, Txurixoberriko trikuharririk bisita daiteke Arribetik, Burnigurutzetik San Migelera doan bidean, edo Trikutsetakoa Azkaratetik, Ba-



lerdiren magalean.

Betelun ikustekoak dira San Pedro Apostol eliza eta bi basiliza, Santa Cruz eta San Donato, eta ederrak dira

Arribe eta Atallun Araxes ibaiaren gainean dauden harrizko zubiak. Aipatzekoak ere bertako artisauak, bai zura nola burdina lantzen dutenak.

da, hau da, italianoan, baina erdarazko subtituluekin.

**Su ta Gar** eta **Leize** taldeek joko dute gaur ostirala Lakuntzako Ilargi Dantzalekuan. Euskal 'heavy' dantzatzeko parada ederra, beraz, Sakana aldean. Sarrerak ohizko tokietan.

### KIROLA



**Mikel Saralegi** Leitzako harri-jasotzailea, 290 kiloko harri koadratua jasotzen saiatuko da bere herriko Amazabal pilotalekuan gaur arratsaldeko seietan. Bere azken errekorra 280 kiloko harria jasotzea izan zen, eta orain 10 kilo gehiago duen batekin saiatuko da, urte bat lesionaturik igaro ondoren. Ekitaldian Mingedia eta Arrospeide aizkolariak arituko dira elkarren aurkako lehiak.

### ZINEMA



**Harreman arriskutsuak** filmea botako dute bihar larunbata Beteluko eskola zaharretan, gabeko 21.30etan. Filmearen ondoren, Tolosako sexologo batekin solasaldia izanen da.

distantziatik, eta kanpoko irudiak gehituz interpretatzen du mundua.

### MUSIKA



**Don Giovanni** izeneko opera fa-

matua entzun daiteke datorren asteartean, abenduak 10, Iruñeko Gaiarre Antzokian. Mozarten bigarren urteurrena dela eta, Milango 'Arturo Toscanini Antzerki Lirikoa' izango da lana aurkeztuko duen taldea. Jatorrizko bertsoian eskeiniko

**Las aventuras del Baron Munchausen** filmea izanen da ikusgai Leitzako zineman gaur ostiralean, arratsaldeko 17etan eta 19etan, eta igandean 'Dick Tracy' Warren Beatty famatuaren filme ikusgarria botako dute.

### ERRAN DUTE

**Hermitas-ekin zerua Iruñean bertan daukagu»**

**Andres Goñi**  
103 urte

**«Nafarroako eskaintza kulturala urriegia dela esatea gutxi esatea da»**

**Julio Arostegi**  
Historialaria

**Rosi Arrizabalaga**  
Yauzkari dantza taldekoa

**«Gero eta nafarragoak garen neurrian, are eta espainolagoak gara»**

**Jesus Aizpun**  
UPNko presidentea

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Juan Cruz Alli



Nafarroako presidentea

Juan Cruz Alli Nafarroako presidentea Ardanza lehendakariarekin bildu zen joan zen astean Ajuria Enean, bi autonomi elkarten arteko harremanak zehaztu eta sakondu asmoz. Lehendakariak «historikotzat» jo zuen bilera, eta Juan Cruz Allik «garrantzitsua» eritzi zion.

Bilera begi onez ikusi zuten euskaldun askok, erabaki zehatzagorik ez baino konpromezu zehatzak hartzeko lehen urratsa zelakoan, eta, aspaldiko partez, bi elkarteak uztartzen dituzten loturak erakundeetan sendotzeko bidea antzematen zelako.

Allik adierazi zuenez, «estereotipo eta aurritiziek» amaitzeko garaia bazen, eta gaurko egoerari «zentzubaikoa» deitu zion. Bertan ez zen bi elkarteekiko erakunde finko bat osatzeko erabakia hartu, baina bilerak aldiro egiten zirela esan zuten.

#### Zupo Ekisoain



Mepamsako entrenatzailea

Zupo Ekisoainek garbi esan zuen Zjoan zen astean Teurorekin galdu ondoren: «Mentalizazioa behar dugu, horrela ezin gaitezke ibili». Izan ere, Iruñean jokaturako partiduan, taldeak izugarriko lasaitasuna erakutsi zuen, eta galdu ere, galdu zuen. Alcalaren aurka ere porrot egin zuten nafarrek, eta hasieran hirugarren postua eskuratuta zutela iruditu arren, gauzak benetan zailak ditu aurrean eskubaloit taldeak. Orain bostgarren tokian daude, eta bigarren fasean ari ahal izateko Guadalajaren kontrako partiduan ezin dute huts egin. Gelditzen diren hiru partiduetan lau puntu lortu behar dute sailkapena ziurtatzeko, eta hasierako irribarrea —partidu onak eta maila bikaina erakutsi zutela eta— muzin bihurtu da Zupo Ekisoainaren ezpainen.

#### Balerdi Balerdi



Musika taldea

Balerdi Balerdi taldekoek beren lehen maxi singlea grabatu berri dute Iruñeko Gor disketearekin. Grabaketa Bordelen egin dute, eta bertan zortzi kanta biltzen dira: 'Kantatu nahi nuke', 'Tralara', 'Ba dago', 'Beti gazte', 'Hautsaren dantza', 'Heldu gabe', 'Inon inoiz ez', eta 'Lore etxean'. Abesti guztiak Toño Muro taldeko abeslariak egingoak dira, 'Tralara' izan ezik, horretan Pello Lizarralde ere hartu bait du parte. Iruñeko taldeak aurretik maketa bat grabatuta zuen, zazpi kantarekin, eta disko berrian hango bi azaltzen dira: 'Ba dago', eta 'Hautsaren dantza'. Oraindik, hala ere, ez dago guztiz zehaztuta diskoak argia noiz ikusiko duen. Balerdi Balerdi taldea Toño Muro, Sergio Ibarrola 'Zarathustra' eta Marino Goñik osatzen dute.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9.00etatik 10.00etara... **Xinguli Mangulu**. Haurrentzako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteartean FMn 22.00etatik 23.00etara... **Gautxori** Irratsaio musikala, narrazioak.

#### RNE1 OM 835-R5 FM 95.7

OMn Larunbata eta igandetan 13.05etatik 13.00etara... **Zuri eta beltz** Asteazken zehar egindako kroniken laburpena.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Egunero 13.00etatik 13.30etara... Larraun, Imotz, Araitz, Basaburuko albistek.



● Elgorriagako bainuetxea 1920. urtean. Argazkian agertzen diren kotxeek garbi adierazten dute bertara joaten ziren bezeroen maila.

## Ura, sendagai aparta

**U**raren erabilera medikuntza arloan oso zabaldua izanda, bainuetxe sorta eraiki zen Europa osoan joan zen mendearen bukaeran. Garai eta òhituren aldaketen poderioz atek itxi behar izan zituzten askok, baina berriro ere horretarako egoera ona da goela dirudi. Nafarroan, horren lekuko, Elgorriaga eta Belaskoangoak.

Erroma garaian jadanik ezagutua, Fiteroko bainuetxea da Nafarroan egun martxan irauten duen bakarra. Tuteratik 24 kilometrora eta Fiterotik hirura, La Riojako mugan, 445 toki ditu banatuta bere bi hoteletan, Gustavo Adolfo Becquer eta Palafoxetan. Urak klorutada-sodikoak eta sulfatadoak dira eta 50 gradutan

ateratzen dira menditik. Bereziki gomendagarriak dira erreumarendako, arnasa aparatoen gaitzendako, hezurrendako eta loditasunarendako.

Iturriak hotelean daude, eta Becquerren, ura 1.800 litro/minutuko ateratzen da. Palafoxen, 1.080 litro/minutuko. Uren onurak profitatu nahi dituenak azterketa medikoa gaintu behar du, eta bainuetxeak hiru sendagile dauzka horretarako. Horien ardura da bisitarien gaitza aztertu, tratamendua asmatu eta praktikan jartzea. Horretarako baliabide franko erabiltzen da Fiteron, hala nola sauna, dutxak eta masaiak.

Baino berriak Elgorriaga eta Belaskoainetik datoz, bertako bi bainuetxeak atek berriro irekitzekotan bait dabilta. Elgorriagakoak XIX. mendearen amaieran itxi behar izan zituen atek, Gerra Zibilearen osteko krisialdia zela eta, baina egun badi-rudi horrelako proiektua aurrera eramateko baldintzak betetzen direla.

Jose Miguel Galarreta bertako alkatearen ustez, agian bi urteren buruan eraiki liteke Elgorriagako bainuetxe berria. 800-1.000 milioi pezetako aurrekontua izan lezake proiektuak, eta azterketa zehatza

**E**lgorriagan behiak toki berera joaten ziren beti bazkatzera, eta hartatik hasi ziren, soro hartan bazegoela zerbait».

oraindik osatuta ez badago ere, pausu garrantzikoak eman dira jadanik. Horrela, lurpeko prospekzioa egina da, eta hogeit metrotik 200 bitartean

gatza betetako beta aurkitu da. Horrek baikor izateko parada azaldu du Elgorriagan, eta putzuaren bideragarritasun plana egin eta gero, errentagarria izateko adina ura ateratzen bada, aurrera egingen du asmoak.

Bertakoek aspaldidanik ezagutzen zituzten onura hauek, XIX. mendean, bainuetxea oraindik altxatu gabe zegoenean, herriz herri eta etxez etxe ibiltzen bait ziren gatza saltzen. «Gure amak esaten zuenez, behiak toki berera joaten omen ziren bazkatzera eta hartatik hasi ziren, soro hartan bazela zerbait» azaltzen du Joakinita Lekuonak. «Hemengo urak hartu eta katarro bat ez zenuen harrapatuko negu guztian».

Belaskoangoak (Etxauri) ere urte ederrak izan zituen Espainiako gerra zibilera arte. orduetik aurrera bainuetxeak itxi bait zituen atek. Uraren komertzializazioa, ordea, ez da inoiz eten, eta bere fama Amerikaraino heldu zen, hara bidaltzen bait ziren

zenbait kaja joan den mendearen amaieran. Duela 25 urte botilatzeke tresneria paratu zen bertan, gaur arte iraun eta erabili dena.

Urak giltzurritan eta gibelen gaitzendako daude bereziki gomendatuta, eta 28 gradutan ateratzen dira iturritik. Bai edateko nola bainuak hartzeko erabiltzen ziren.

1835ean 'Nafarroako Erret Bainuetxeak' izendatu zituen Carlos Erregeak, «gerran zauritutako nafar oldartsuak zaintzeko egin duen lanagatik». Esteban Bengoetxea orduko jabeak erret harmarria bainuetxean paratzeko baimena ere jaso zuen.

Gerra Zibilean, esan bezala, itxi zuen bainuetxea, eta denboraren poderioz, franko arraildua gelditu zen. Jabeek, ordea, duela gortu urte ekin zieten berrikuntza lanei, eta gaur egun aspaldiko itxura hartu du berriro ere. Asmoak bainuetxea berriro irekitzera daude zuzenduta, data zehatzik ez badago ere.

## «Aproposa burdinaren

Medikuntzaren lehendabiziko aztarnetan aise aurki daitezke uraren erabilaren arrastoak, baina Ilustraziora arte, XVIII. mendean, ez du leku ofizialik hartzen urak sendagaien artean. Hala eta guztiz ere, nabaria da, oraindik orain data horretan, herri sinismen, usadio eta ohi-turekin duen lotura, iturriak, sarri askotan, baseliza edo santutegi batekin batera azaltzen bait dira, biziki lotuta. Iturri eta ur hauei buruz artikulua agertzen da 'Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra-ren' azken alean.

Horrela, hipokondrijoan izaten di-

ren minetarako bereziki aipagarriak dira Larragan eta Usunen (Romanzado) dauden iturriak eta Olite, Gorritz (Longida), Leitza, Lerin eta Cascanten aurki daitezkeenak probetxugarriak daude lixeriketa egiterako orduan sortzen diren gaitzenda-

ko. Sabelen minendako aringarritzat jotzen direnak, orobat, ugari dira Nafarroan. Basaburuko Berueten, kasu, bi iturri daude. Lehendabizikoak sabela biguntzen du, eta bestea hipokondriarendako onuragarria da, lehendabizikoa hartu dutenak sendatzeaz gain. Halaber, Carcarretik



## tenplerendako»

kilometro batera edo, oso lur malkorrean, harkaitzetatik ateratzen den urak antzeko ezaugarriak ditu. Falcesen ere Calchetas izeneko iturria dago, gernu-debequarendako onuragarria.

Beste alde batetik, badago beste iturri sorta, gaitz bereziendako baino, orokorrean onuragarritzat hartzen direnak, eta azken hauetan nahasten dira nabarmen medikuntzarako erabilerak eta erlijioa. Horrelakoak dira Arre (Ezkabarte), Iza-ba (Erronkari), Lantz, Latasa (Imotz), Leotz (Orba), Leire, Orotz-Betelu (Artzibar), 'Roqueforte' eta

Uxueko Lezkairun aurki daitezkeenak. Urbero edo urpelen artean, aipatzekoak dira Belaskoain (Etxauri), Betelu, Fitero eta Iberokoak (Oltza Zendea) eta mineralen artean, Fontellasekoa.

Beste batzuen ezaugarriek, ordea, ez dute zer esan handirik medikuntzarekin, baina oso bitxiak dira testu zaharrek aipatzen dizkieten onurak. Esate batera, Soltxagan (Orba) dagoen iturri baten ura «oso aproposa da barazki eta lekariak egosteko» eta Tuteratik igarotzen den Queiles ibaiaren ura «berezia da burdinaren tenplerendako».

# Lesaka, Laminacionesen esku

**H**aize bilduak siderurgian. Bizkaiko Labe Garaiak (AHV), Ensidesa eta Acenorren egoera txarrak kezka sortu du Nafarroako hiru lantegietan —Lesakako Laminaciones (AHV), Berako Fundiciones (Acenor) eta Iruñeko Perfrisa (Ensidesa)—, birmoldaketak eragin handia izanen bait du hiruretan. Egoera bereziki kezagarria da Baztan-Bidasoan, bi enpresak zonalde osoaren sustengu eta oinarri bilakatu bait ziren aspaldian.



## «Birmoldaketan parte hartu nahi dugu»

Sindikatuak protagonismo zuzena eskatzen dute egoerari buelta emateko

ALBERTO BARANDIARAN / LESAKA

**EGUNKARIA.**— Lesakako Laminaciones-en auziaren inguruan askotan aipatu da Nafarroan dauden lantegiak aurrera egin lezaketela, hau da, arazoa ez dagoela hemen, Bizkaiko Labe Garaiak enpresak (AHV) Sestaon duen lantoki nagusian baizik.

**LANGILE BATZORDEA.**— Hori ez da horrela. Gu AHVko lantegi bat gara. Hemen transformatzen dugu handik ekartzen dutena, eta horrek etekin handiagoa ematen dio produktuari. Arazoa zera da: jasotzen dugun materia garestiegia dela, eta hemen sortzen dugun etekinarekin ezin dugu hori guztiz konpondu. Hala ere, ezin da esan hau errentagarria dela eta bestea ez, gu besteren zatia bait gara. Konponbidea lantoki nagusi kompetitibo bat lortzea litzateke, Europar daudenaren mailakoa. Hemen jasotzen dugun materia gordina Europar baino 8 pezeta garestiagoa da. Kontutan hartzen badugu AHVk 1.400.000 tona ekoizten duela urtero, hamabi mila milioi pezetako desabantaila daukagu hasiera bertatik. Gauzak horrela, prozesu guztia defizitarioa da.

**EGUNKARIA.**— Nafarroako Parlamentuan Rodriguez San Vicente Industria kontseilariak lantoki nagusitik bereizteko aukera aipatu zuen, materia gero merkatuan eros-

teko. Hori posiblea da?

**BATZORDEA.**— Hori bakarrik esan dezake enpresarekin inolako harremanik ez duenak. AHVtik bereiztuz gero, nork hartuko luke Laminacionesen ardura? Zenbat ordaindu beharko lioke AHVri honek enpresa uzteko? Zer egingo luke AHVk bere produktuak bukatu eta osatzen dituzten enpresik gabe? Hau dena elkarrekin dago, eta konponbidea ez dator hortik. Oso bestelakoa izango litzateke AHVk porrot eginez gero Nafarroako enpresari aterabidea eman nahi izan baliote, baina hori ez

**1 1985ean egin zen birmoldaketatik, soilik plangintza laborala bete da. Finantzarioa eta industrialak huts egin dute»**

da egoera. AHV ez dago hain gaizki, eta denon ardura da aurrera ateztea.

**EGUNKARIA.**— Orain dela gutxi Pedro Sagues INIren zuzendaritakoak esan zuen birmoldaketak ez litzukeela ikutuko Nafarroako enpresak. **BATZORDEA.**— Bai, esan zuen

«oraingoz» ez zituela ikutuko, baina gu ezin gara ibili horren zain. Ezin ditugu konponbideak atzeratu, garbi bait dago birmoldaketa egin, egin behar dela. Plangintza industrial osoa eta osatua, egokia, martxan jartzen ez badugu, ixtera behartuta gaude. Lehendabiziz lantoki nagusia, eta ondoren, beste enpresak, besteen menpe geldituko bait ginateke.

**EGUNKARIA.**— Eta zeintzu izango lirake birmoldakeraren ardatzarik nagusienak?

**BATZORDEA.**— Arazoa garbi dago. Guk gehiegizko kostua dugu, aurreko birmoldaketa gaizki egin zelako. Plangintza guztietan hiru arlo daude, nolabait esateko: industrialak, finantzarioa, eta laborala. Industrialak siderurgia berriaren ardatzak eta oinarriak paratu behar ditu. Finantzarioak birmoldaketaren kostuari aurre egiteko baliabideak lortu behar ditu, eta laboralak, azkenik, langilegoari dagozkion neurriak hartu behar ditu. Argi dago bete den bakarra azkena izan dela. 1985an ginen 12.500 langiletatik 6.425 gelditu gara. Finantzarioak huts egin du, defizita gero eta handiagoa delako, eta birmoldaketa industrialak ez zen egokiena izan. Errudunak bilatzeak ez digu baliu, baina orain gauzak ongi egin behar dira.

**EGUNKARIA.**— Baina oraingo birmoldaketak berriro ere era-

gina izanen du langilegoarengan?

**BATZORDEA.**— Bai, jakina. Birmoldaketa nabarmen somatuko dute langileek, eta ordain oso handia izanen da. Eta gu prest gaude horrelako negoziaketa berriro aurrera eramateko,

**E**zin da esan Sestaoko lantokia gaizki eta Laminaciones ongi dagoela. Bi lantokiak batera doaz.

baina horrekin ezin dugu ziurtatu orain diseinu egokia egingen dutenik. Ez dugu inolako garantiarik. Aurrekoan ere izugarriko ajuste egin genuen, eta gauzak berdin daude, ez zen deus ere konpondu.

**EGUNKARIA.**— Eta nolabaiteko garrantia izateko, zeintzu dira zuen baldintzak? Birmoldaketaren diseinuan

ere parte hartzea?

**BATZORDEA.**— Hori da. Lehengoan ez zuten sindikatuek parte hartu. Bakarrik CCOO eta UGT ibili ziren han, estatu mailakoa izan zelako, eta soilik plangintza laboralarengatik kobertura ekonomikoaz aritu ziren, hau da langilegoaren birmoldaketaz. Honako hauetan, plangintza laboralean ez ezik, lantegiaren plangintza antolatzen ere arituko garela esan digute, baina guk ez dugu sinisten, hori ez bait dute inoiz ere egin.

**EGUNKARIA.**— Aipatu da ere Ensidesa eta AHVren arteko balizko fusioa. Birmoldaketa bateratua izanen da?

**BATZORDEA.**— Birmoldaketak sektorialak izan behar du, eta horrek esan nahi du Estatuan dagoen kompetibitatearekin amaitu behar dela. Iruñeko Prefrisak —Ensidesa—, oraindik gaur egun, Holandatik ekartzen du pintatutako txapa, eta txapa hori Legasako lantegiak egiten du, hau da berrogei kilometrotara dagoen lantegi batek. Orduan, fusioarekin, gastuak murriztu ahal izanen dira, eta plangintza orokorra egokiagoa izanen da.

## «Erabaki politikoak daude tartean»

**EGUNKARIA.**— Egin dituzue kalkuluak birmoldaketak Nafarroan izanen zuen eraginaz?

**BATZORDEA.**— Gure ustez ez du eraginik izanen, ez bait diegu utziko AHVren produktzioa murrizten. Eta horrek esan nahi du produktua osatzen duten lantegiak —Laminaciones, kasu— beti bete bete gotea. Horregatik ez dugu ezta aztertu ere egin eraginaren kontua. Guk badakigu enpresa honek izugarriko garrantzia duela zonalde honetan, hemen dagoen langile bakoitzeko bost edo sei gehiago bait daude kanpoan, honekin lotuta.

**EGUNKARIA.**— Orduan, eta produktzioa murrizten ez bada, birmoldaketa soilik gestioan izanen litzateke?

**BATZORDEA.**— Gure ustez horrela behar du izan. Ongi egiten badira gauzak, bi siderurgien arteko oreka lortuko litzateke, eta gauza asko konpondu ahal izanen lirakeke kostu txiki batekin. Arazoa da denon ustez erabaki politikoek izanen dutela nagusitasuna, eta Euskal Herriak, kasu honetan, ondorioak jasanen dituela. Guk abisu ematen dugu garbi, ez diegula utziko, eta nahi izanez gero, istiluak izanen dira.

**EGUNKARIA.**— Eta balizko itxialdia

izanez gero, zeintzu lirakeke zonalde honek izanen litzukeen beste aukerak?

**BATZORDEA.**— Ezin da beste aukeraz hitzegi hau bezain utzita dagoen zonalde batean, ia komunikabiderik ez dagoen leku batean. Zailtasunak izugarriak ditugu... nork paratuko luke beste enpresa bat gu desageratuko bagina? Urteak ditugu emanak gasik gabe, eta hor bertan dugu, Iruñen. Baina horretarako guk paratu behar ditugu hodiak, dirua... Orain Barcelonatik ekartzen dugu, horrek dakarren gastu eta arriskuarekin.



Nafarroako Gobernuak benetan parte hartu behar du guzti horretan, eta laguntzak eman behar dizkigu, bai errepideak hobetzen, nola gasa ekartzen, murrizketa fiskalak egiten, eta abar.

Lesakako Laminacionesen Langile Batzordeko partaidetakoak ikus daitezke SALSAMENDIK ateratako argazkian: Enrique Lopez (ELA), batzordeko presidentea; Ramon Alvarez (CCOO); Iñaki Abalde (ESK-CUIS) eta Julen Mitxelorena (LAB)

## AHV: «Mundu osoko krisia da hau»

AHV enpresak urteren amaiera baino lehen egitasmo estrategikoa aurkezteko asmoa dauka. Plangintza horretan zehaztuko dira hurrengo urteetarako eta birmoldaketa osatzeko ardatz nagusiak, eta hori izango da hurrengo urratsetarako oinarri eta funtsa. Birmoldaketaren beharra aipatzeko orduan, analisi zeharo desberdinak antzeman daitezke sindikatu eta enpresaren adierazpenen artean. Enpresak mundu osoan dagoen egoera ekonomikoari leporatzen dio horren ardura, eta sindikatuek, berriz, aurreko birmoldaketaren porrota azpimarratzen dute.

Ignacio Agreda AHVko bozeramailearen esanetan, hiru dira bereziki egoera larriaren sortzaileak: Europako Ekialdeko merkatuen galera, bertako zailtasunak direla eta; Europa osoan izan den atzerakada ekonomikoa; eta burdinaren eskaeraren beherakada. «Kontutan hartzen bada —dio Agredak— Europa osoan prezioak jaitsi egin direla, eskaintza eskaera baino handiagoa zelako, egoera ulergarria da». Esan behar da AHVk iaz 3.850 milioi pezetako galera izan zituela.

Orobat, egoera duela sei urte egingandako plangintza okerraren errua izan daitekeenik ukatu du bozeramaileak: «Azken bi urteotan gertatu den guttia —prezioen beherakada eta krisiaren iraupena— ezinezkoa zen aurrirusteko birmoldaketa asmatu zenean, eta horren lekuko Europa osoan dagoen egoera txarra».

Enpresa osatzen ari den plangintza orokorrean zehaztuko dira, esan bezala, aurrerantzeko ardatzak, baina Agredak ez zuen argitu hori aurrera eramateko egiten diren egitasmoetan sindikatuek parte hartuko zuten. «Oraindik ez diote aurkeztu enpresari eskaera ofiziala, baina horrela balitz, aztertuko litzateke».

Behin baino gehiagotan aipatu dute sindikatu eta bertako alkateek Nafarroako Gobernuak oso ardura eskasa erakutsi duela siderurgiaren arloarekin. Hau, Agredaren esanetan, ustekabea da, «harremanak oso onak eta jarraiak izan bait dira. Ez dugu bestelakorik somatu».



● Lesakako Laminacionesen Sestaoko lantoki nagusitik heltzen den materiala birfindu eta bukatu egiten da. Argazkian, bobinak prest komertzializateko.

## Etxegarai: «Bide berriak ireki dira Alliren bisitaldiarekin»

Joan zen azaroaren 27an bertako alkate eta Laminacionesen langile batzordearekin bildu ziren Juan Cruz Alli presidentea eta Angel Rodriguez San Vicente Industria kontseilaria. Bertatik atera ziren zenbait konpromezu eta hitzarmen, bai lantegiak berak nola zonaldeko alkateek maiz eskatutakoak. Presidentek 700 milioi pezetako inbertsioa iragarri zuen Lesakako industrialde berrian, oro har 181.000 metro karratu hartuko duena. Horiatariko 80.000 lantegien pabilioietarako izanen dira. Horiakin bat, 1993an Irungo gasa Lesakaraino helduko dela azaldu zuen Allik, eta komunikabideak —Irundik datozenak eta Belatekoak— hobetzeko asmoa azaldu zuen.

Bilera positibotzat jo zuten Bidasoa-Baztango alkateek eta Laminacioneseko langile batzordeak. Jose

Luis Etxegarai Lesakako alkatearentzako, bilera «irekia eta oso positiboa» izan zen, eta bereziki nabarmendu zuen presidentearengan aurrerantzeko jarrera. «Gurendako bakkarik honaino etortzea izugarri garrantzitsua da, gure ustez Nafarroako Gobernuak parte zuzena hartu behar bait du egoera konpontzeko».

Alkateak Asturiasen duela gutxi izandako manifestazioa nabarmendu zuen. «Bertan hango presidentea egon zen buruan, eta horrek izugarriko garrantzia du Madrilan». Gobernuaren aldaketarekin gauzak irekiago eta zuzenagoak zirela esan zuen. «Solasak, orain, aunitz irekiagoak dira, eta argitasun handiz mintzatu gara presidentearekin. Aldaketa nabaria da, dudarik gabe, eta bide berriak aurkitu ditugu».

Industrialde berria Lesakako

Udalaren lur eremuetan kokatuko da. Sail hau geldirik mantendu nahi izan zuen orain arte udalak, baina egoeraren larritasunak jarreraren aldaketa ekarri du. «Guztiz geldirik ez, baina orain arte ez genuen oso garbi ikusten lantegi gehiago paratzeko beharra. Hala ere, gauzak, azkenaldiotan, aldatu egin dira, eta beharra garbia denez, lur eskaintza egitea erabaki du udalak».

Industrialde horretan kokatuko diren enpresetarako, nolana ere, zenbait baldintzak paratu dira, eta lehendabizikoa kutsatzaile ez izatea. «Laminacionesekin badugu kutsadura sobera, eta etorriko diren enpresa berriak 'garbiak' izanen dira, elektronikaren arlokoak, edo».

Bilera eta elkarrizketetan zonaldeko alkateen batzordeak hartu du parte.

mintzoak

## 1841-1991 150 Urtetako murrua

● Amaitzean dagoen urte honetan, mende t'erdia betetzen du zenbait historiagileen erranetan «Nafarroako historia garaikidearen gertaerarik eraginkorrenak», hau da, Foru nafarren aldaketaren legeak, 1841ko abuztuaren 16an aldarrikatu zena.

Aitzaki honetaz baliatuz, mintzaldi, mahainguru eta artikuluak batzuen bitartez, foruzale ofizialista nafarrek goraiatu dituzte lege horren ustezko bertute eta abantailak. Sektore hauen arabera, lege honek foruen «gaurkotzea» eragiteaz gain, Estatu eta Nafarroaren arteko Hitzarmenaren filosofia isladatuko luke, 1982ko Foruaren Hobeagotzearen eredu eta urrekide zuzena izanik.

Euskal Herriko historia gehiena *ad probandum* idatzirik baldin bada, erabilpen hauxe adibide garbienetako bat dugu. Egungo errealitate politikoa sustrai historikoak bilatu nahiean dabilzela, bortz axola zaie iragan historikoa, goitik behiti, bortzaxtea.

Alde batetik, Foruen gaurkotzearen izenean aurkeztu dugutena euskal eskubide eta erakunde anitzen suntsipena baino ez zen izan. Orduetik aintzinat, soldaduskaren inposaketa ez ezik, Estatu zergen sistema ere martxan paratu zuten eta erakunde autonomiko adierazgarrienak desagertarazi zituzten. Eta bertzetik, guzti hau ez zen inolako hitzarmen baten bitartez gauzatu. Zentzu honetan, erran beharra dago Lege hau izendatzeko hain zabalduak suertatu diren 'Lege Hitzartuaren' hitzak ez direla, inondik ere, errealitate historikoetatik atera, zenbait nafarren idazlanetatik baizik. Izan ere, nafar eta Madrileko ministraria zen Jose Alonsok, 1848ean lehen aldikotz erabili zituen hitz horiek legea hutsik birbataitzeko *ituraren* teoriaren defendatzaile izan diren guztien ildo irekiz.

Hala ere, bertze alde batetik begiratu gero, bada parekotasun bat 1841ko eta gaur egungo egoeraren artean. Nafarroa eta Euskal Herriko gainontzeko lurraldetako harremanei dagokionean, hain zuzen ere. 1982ko Foruaren Hobeagotzearekin gertatu den bezala, 1841ko abuztuaren 16an kaleratu zuten legeak egundoko harreri juridiko eta politikoa eraiki zuten euskaldunen artean. Izan ere, lehendabiziko gerrate karlista amaitu arte, Euskadiko lurralde orok garapen politikoa arras berdintsua izan zuten arren, lege hori zela medio, bilakaera amankomuna, neurri handi batetan, apurturik gelditu zen.

1841ko abuztuaren 16az geroztik Nafarroa eta Euskal Herriko bertze lurraldetako egitura legislatiboek bide desberdinak hartu zituzten. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko eskualdeek, 1839ko urriaren 25ko legeari bizkarra

emanez, 1876ra arte beren eskubideetan aldaketa nabarmenik pairatu ez zuten bitartean, Nafarroako aitzindari politikoei onartu egin zituzten 1841ko legeak zekartzan foru nafarren aurkako eraso eta eraldaketak.

Liberal nafarrek, Madrileko buruzagiekin bat eginez, bertako erakunde, eskubide zein ahalmen foral anitz zokoratu zuten, nolabait aginte administratibo eta ekonomikoa

eutsi asmoz. Estatu espainolak baimendutako egoera berri honi esker, orduetik aurrera Nafarroan bermatu zen klase zuzendariak lurralde hau bere probetxurako ustiatu zuen erabat, Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin batera suerta zitezken saio, borroka eta errebindikapen amankomunei uko eginez.

Horrela ez da harrigarria, gaur egun arte, Iruñeko aginteetan txandakatu diren mota guztietako *nomenklaturak*, hots, liberalak, karlistak, frankistak, sozialistak... eta abar, bere jauntxokeria sustengatzeagatik, behin eta berrero, Euskadi osoko dinamika bateratu baten kontra aritu izana. Hau suertatu zen 1917-1919, eta 1931-36 urteetan euskal errebindikapen autonomikoak, oihartzun eta arrakasta handiz karrikaratu zirenean. Eta horrela gertatu da 1975az geroztik, Frankoren Diktaduraren aurkako borroketan lortu zen euskal nortasunaren kontzientzia eta batasuna desitxuratzeko asmoz sozialista eta eskuindar nafarrek mito eta teoria sasi historikoak jositako *nafarzalekeria* aldarrikatu dutenean.

Nafarrak bertze euskaldunengandik bereizten saiatzen den azken *ideologia* honek 1841 zein 1982ko bezalako legeen inguruan sortutako mito eta ikuspegi alderdikorretan sartzen ditu bere sustraiak. Erro sendoak gainera, zeren Foruei buruz, sarritan erran eta idatzi dena «maitatuak bezain ezezagunak» direla, alegia, lege hauei bete betean bait dagokie.

Hau dela eta behar beharrezkoa dugu lan historiografiko sendo eta sakon bat aitzinat eramatea, mitologia foralista guzti hau errealitate historikoaren ildora itzultzeaz gain, herriaren baitan ezagutarazteko. Zentzu honetan erabat egokia jotzen dugu Historia Institutua den Geronimo de Ustariz eta Eusko Ikaskuntzak datozten egunendako Iruñean prestatu dituzten hitzaldiak. Ezezagutza historikoaren murrutan zulo batzuk bertzerik ez badira ere, egun batean ortzemuga historiografiko berriak irekiko dituztelakoan gaude.



## Gazteendako Zokoa

**G**azteendako orrialde honen barruan, zuei zabaldu nahi dizuegu tarte txiki hau, zuen poesiak, idazlanak eta goetak azal ditzazuen. Aste astero erreportaiak, elkarrizketak, edo, besterik gabe, gordeta daukazun orrialde horiek, edo buruan duzun egun zoragarri hori agertuko dira sail honetan. Nafarkaria-ra bidali baino ez duzu egin behar: Iratxeko Monastegia, 45, 13. Eskuina. Iruñea.

# Goazen Erasora

ION MATXAIN BERAZA  
Barañaingo Institutua

Eraso Imotz haranean dagoen herri tipi bat da. Gutxi gora behera berrogei-berrogeitamar biztanle dauka, baina bere ingurua zoragarria da. Mendiz inguratuta, gorostiz eta zelai berdez. Egun batean erasotar emakume batekin ezkondu zen gizon bat era bere semea mendira joan ziren, Erga mendira hain zuzen. Aitak Julian zuen izena, eta semeak Ion. Erga mendirako bidea hartu zuten. Ion ez zen inoiz mendi hartara igo, eta horregatik hasieran malda oso handia ez zela iruditu zitzaion. Erraz joaten zen. Aita mendizalea zen oso, eta zuhaitzak nola bereizi erakusten ari zitzaion.


—Hau pagosta duk, beitzen? Borobila eta txikia duk. Tronkuaren azala oso leuna dik baita.

Bertan, Erasoko menditan zuhaitz mota ugari aurki daitezke. Halaber, pagoak, haritzak, intxaurrondoak,

gaztainondoak, urritzak... Ioni asko gustatu zitzaion bide hori. Oraindik ez ziren asko ibili, eta urritzak eta gaztainondoak bide ertzean azaltzen ziren. Esan behar da gainera Zarrantzeko mendian urrizti bikaina dagoela.

Julian eta Ionek pista utzita zuten eta gurutzeraino eramaneen zien bidea hartua zuten. Bertan, bidea bestea baino zailago eta estuagoa zen, eta udazkena zenez, ostoz betea zegoen. Bi aldeetan pagoak azaltzen ziren dagoenako, zortzirehun metro inguru. Ion ez zebilen lehen bezain fresko, baina gora igo nahi zuen. Aldapa lehen baino handiagoa zen jadanik, baina oraindik ez zen oso handia.

Bidea segitu zuten, eta Berakotxeako borda eskuinaldean utzi zuten. Borda hori emaztearen familia-rena zen. Aire hotza zen, baina be-



Basaburua.

raien gorputzak bero zeuden. Malda gero eta handiagoa zen. Momentu batean Gorakoetxeako bordan zeuden. Hau erori zen berrogeitamar bat urte lehenago. Bertatik Imotz bailara osoa ikusten zen, eta Ion liluratirik zegoen. Paisai hura deskribaezina zen.

Gora egin zuten, eta gurutzeraino heldu ziren. Gurutzetik bost bide ateratzen dira: bata gora, bestea laua eta bestea behera. Aginagatik Ergara igotzen zuen pista. Gorako bidea

hartu zuten, eta pista heldu zirenean. Ion izutu egin zen. Bertako maldak Tourrean igotzen dituztenak baino askoz handiagoak ziren. Pista hartu eta bi aldeetan bakarrik pagoak ikusten ziren. Pista hostoz betea zegoen, udazkena zelako. Bil kilometro igo eta Erga tontorreraino heldu ziren.

Bertatik ikusten zen paisaia zoragarria zen. Sakana osoa ikusten zen mendebaldean. Gipuzkoako lehengo mendiak ere ikusten ziren. Iparraldera Larraun harana ikusten zen; ekialdean, Imotz, Ultzama haranak ikusten ziren, eta hegoaldean Iruñerria.

Muino eta mendi tontor asko ikusten ziren. Artxueta, Belate eta, urrun, Pirinioak ikusten ziren. Bi ahizpak hamar metrotara ikusten ziren, beherantz begiratu. Herri multzo izugarri ikus zitezkeen: Irurtzun, Erga mendiaren maldan, Sakana osoko herriak, Imotzekoak, Basaburuatik Udabe, Beramendi, Jaunsarats eta Berruete ikus zitezkeen, eta Larraungo Aldatz, Arriazu eta Etxarri. Iruñea hegoaldean ikusten zen. Erga mendia mila eta lau rogeitazortzi metrotara aurkitzen da. Orduantxe ikasi zuen Ionek berak mundu honetako gauzarik politena zein zen: Natura, eta mendian ibiltzea.

Zergatik orain mendizaleatasuna jeitsi da? Hirian jendea aspertzen da, baina ez da inor mendira joaten. Zergatik? Mendia da munduan daukagun gauzen artean onena. Ikas dezagun Natura.

(Sai zuri)  
*Neophron percnopterus*

Ugari samar Nafarroan  
2.500 bikote Europan;  
140 Nafarroan

Herriak eta errepideta tik hurbil bizi ohi da.  
Zuhaitzetan ere errun ohi du.



## Sairik txikien eta zuriena

Sai zuria 'faraoi en oilarra' ere du izena, maiz agertzen baita Egiptoko hilibian aurkitzen diren ikonografia eta epigrafian, eta bertan animala sakratutzat zuten. Gorputza zuria du, azpikaldean arre samarra izanda ere, eta aurpegian orria nabarmentzen da. Oso hegazti sozialea, taldeetan biltzen da animala hilen inguruan, hondakinak eta haratustela jateko. Hala ere, arratoi, sagutuak eta txoritxoak ere ditu gustokoak.

Zonalde menditsu zein ordokietan bizi da, eta oso sakabanatuta dago Nafarroan osoan, baina aipatzekoa da Bardeetan biltzen den kopuru handia, askotan hirietan nahiko gertu. Iparraldean, ordea, eskasa da, euriak eta lainoak ez bait dira egokiak bere hegaldientzako.

1,7 metrotako luzera dauka eta bi kilo inguru pisatzen du. Kobazulo eta arkaitzetan erruten ohi du apirilatik aurrera, eta bi arraultzekoak dira. Iraila aldera Saharako bidea hartzen dute, eta martxorako itzultzen dira. Esan behar da Europan osoan arazo asko izan duela espezieak, baina Nafarroan duen egoera nahiko ona da, ez bait dago arrisku larrian. Ez daude datu guztiz zehatzak, baina azken urteotan espezie kopuruak behera egin du, estabilizatu arte. Nolanahi ere babestuta dago ofizialki.

## Zaharrak berri

Hago, hago, hire neurriko zapata opatuko duk hik ere.

Norbaitz parra egiten duenari esana Sakana

A ze mutille naizen ni! Nahikoa jan ta pillotari!

Alfer ederrak esana

Oskotz (Imotz)

Mutiko batek tabernariari:

— Emaidak litro bat ardo.

— Zer nahi duk, zuria ala beltza?

— Berdin duk, itsu batendako duk eta.

## KAZKARROAN

### Ikaslea eta maisua

Leitzako bertso eskolan jarritakoa. Bat esamina egin eta txuleta aritu den ikaslea. Bestea, harrapatu duen maisua.

Gizartean examina genuen astelehenez estudiantzen aritu ta ikasi deus ez txuleta egin nituen deus ez nekienez harrapatu ondoren gelditu naiz penez

Benetan estudiantzen aritu bazina jakin izan zendun nik dakidan aina txuleta ezazu burua engaina zuzendaritza goazen nik ez dut nahi baina

Iker Astibia eta Xabier Arraras

## KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Imotzen jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.


1. Urrun
2. Aldamenean
3. Plur. Insektu mota
4. Izanak
5. Badaukagu

B 10	D 1	D 6	A 7	B 9	D 7
D 5	D 10	A 6	B 12	B 5	A 5
A 11	D 9	D 8	B 8	A 2	D 4
A 4	B 7	B 12	B 2	D 11	A 8
A 3	B 3	D 2	B 1	A 12	D 3

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1												
2												
3												

EUSKARAREN  
IRAUPENA  
NAFARROAKO  
GAZTELERAN

Gure antzinekoen  
euskalduntasuna gogora  
ekarri eta galdutako  
hizkuntz altxorra aurkitzeko  
modua da, izan ere,  
geure burua eta Nafarroako  
kultura hobeki ulertzeko  
balio bait dezake.



PERVIVENCIA  
DEL VASCUENCE  
EN EL CASTELLANO  
DE NAVARRA



Nafarroako  
Gobernua

EUSKARA,  
DENONA

**Bizi Bizian**

## Irakaskuntza anitza

**ipes**

**N**afarroako Giza Ikasketen Bultzapenerako Institutoak (IPES) hamabost urte bete ditu aurten. Oso egoera berezian sortuta —ikasketa eta ikerketa mailako monopolismoa Nafarroan— ongi eutsi dio denborari, eta errealitate finko eta sendoa da gaur egun, mota guztietako ikastaro eta ekintzekin. Bere berezitasuna, nolahi ere, aztertzen dituen gai emaniko tratamenduan datza. Bere partaideek adierazten dutenez, «gaiak errealitatea bezain anitzak dira, beraz, kezka eta ikerketak ezin dira monotematikoak izan».

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

IPES 1976an jaio zen Iruñean, giza zientzietako zenbait profesional proiektu berri eta dinamiko baten inguruan bildu zenean. Asmoa, Nafarroan orduan irakaskuntzan zegoen OPUSeko unibertsitatearen monopolismoarekin apurtu eta ildo berriak jorratzea. Lehendabiziko txostenean agertzen zenez, «irakaskuntzan, ikerkuntzan eta dokumentazioan giza zientzietan dagoen hutsune handia betetzea» zen helburua.

Erantzuna berehalakoa izan zen, ikasleak ez ezik irakasle asko ere ikastaro berri eta modernoak emateko prest agertu bait zen orduan. Lehendabiziko urterako 'numerus clausus' paratu behar izan zituzten San Franciscoko lokaletan, eta ikaslearen aurretik, langileek, baliabide gutxiokoe edota ikasketabaikoe izan zuten lehentasuna.

Hurrengo urtean metodologiaren aldaketa erabaki zen, eta ikastaroen ohizko antolakuntzarekin —irailetik ekainera— apurtuz, irakaskuntza monografikoetan murgildu zen.

Horrela, gaiak anitzu egin ziren, eta soziologia, historia, filosofia eta ekonomia, feminismoa, euskara, nazioarteko politika eta sexualitatea gehitu zitzaizkien. Horrekin bat, ikerketa lanei ekin zien IPESek eta 1985eko martxoaren zortzian, Emakumearen Dokumentazio Zentrua eta



Liburutegia zabaldu zen, Nafarroan egin eta egun irauten duen bakarra.

### EMAKUMEA EUSKARA ETA SOZIOLOGIA

Euskara 1977tik ezarri zen institutuaren programazioan, eta geroztik batez besteko berehun ikasle izan da urteko kopurua. Horrez gain, mintegiak lan eremua zabaldu du, eta hango taldeek horrela deituta, Ermitagainako Eskoletan, Herri Ikastolan, Nafarroako Ospitalean, ikastaro bereziak eskaini izan ditu. Orobat, barnetegiak antolatuta dira Berastegi, Uitzu, Goizueta eta Arbizon, hogeitau egunetako iraupenez, eta umeentzako tailerrak 1982tik aurrera izan dira abuzturo.

Giza ikasketei dagokionez, Nafarroa osora zabaltzeko aukera izan zuen IPESek 1988an, Nafarroako Gobernuarekin lortutako akordioari esker. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Sailak antolatzen duen 'Giza Kultura Bultzapenerako Kanpainan' hartzen du parte herri anitzetan.

### METODOLOGIA ETA GAI AIPAGARRIAK

Baina departamenturen bat nabarmendu baldin bada, hori Soziologiakoa izan da, hala erabilitako metodologiagatik nola landutako gaiak kontutan hartuz. 1976an departamentu hau aintzindaria izan zen Nafarroan, OPUSeko unibertsitateko ikasketak egitasmoan ez bait zegoen horrelakorik.

Haste hastetik mintzaldi eta ikastaro asko egin da eta horien artean daude Nafarroako euskal kontzientziari buruzko azterketa, Eusko Jaur-

laritzak eskatu eta argitaratuta; Irurtzango euskarari buruzkoa, bertako kontzejuak eskatuta; Iruñeko zabor bilketaren inguruko azterketa soziologikoa, Iruñeko udalak aginduta; Nafarroako AEKren egoerari buruzkoa; Baztan-Bidasoari buruzko azterketa sozio-kulturala; Gipuzkoa eta Nafarroako komunikabideen inguruko azterketa; Soldadutza Euskal Herrian, Argian argitaratuta, eta abar luze bat. Horrekin batera, Langaiak izeneko aldizkaria argitaratzeari ekin zion IPESek 1982an. Gaur arte hamahiru alek ikusi dute argia.

Etorkizunari begira, subentzioak dira taldearen benetako lehia. Ospea eta izena merezimendu osoz lortuta Nafarroatik kanpo, barruan horrelakorik ez dagoela dira kexu partaideak, eta eskaintza finkatu eta zabaltzeko derrigorrezkotzat jo dute Administrazioarekin harremanak finkatzea. 1987tik bi milioi pezetako subentzioa jasotzen dute Vianako Printzea erakundetik, baina esan dutenez, «liburutegiak soilik milioi erdia kostatzen du, bakarrik nobedadeak erosteko. Matrikula baxuak mantendu nahi ditugu, eta irakasleek miseria kobratzen dute, baina...».

Beste subentzio motak ere jasotzen dituzte —laurehun mila pezeta Emakumeen Institutoetatik—, baina gutxi derizkiote, «dagoen ikastaro eta ekintzen eskaintza ikusita». Aurten 34 ikastaro daude iragarrita.



**O**spea eta izena merezimendu osoz lortuta Nafarroatik kanpo, barruan horrelakorik ez dutela dira kexu IPESekoak

## Emakumeen liburutegia

A.B. / IRUNEA

IPESeko Emakume departamentua 1979an sortu zen, gai honi buruzko eztabaida gunea sortu eta bi sexuen arteko berdintasunezko egoera lortzeko. Horretarako, eta ikastaroaz gainera, berebiziko garrantzia izan du Emakumeen Liburutegia eta Dokumentazio Zerbitzuak, 1985an eratuak.

Hasiara batean 400 liburuk osatuta, egun 3.500 aletik gora dauka, eta batez beste 800 lagun inguruk erabiltzen du kontsulta edo irakurketerako. Liburutegi hau urtero hornitzen da gai horretaz ateratzen diren nobedade guztiekin, eta maileguren

kopurua 2.800koa izan da aurten. Halaber, liburutegiaren inguruan, zenbait ekintza antolatu ohi dira, eta solasaldiez gain, liburuaren aurkezpenak egin dira bertan.

Hamabost urteotan feminismoaren historia, hezkuntza sexuala, emakumearen historia, gizonezkoan jarreraren kritika, emakumea eta komunikabideak, emakumea eta literatura, emakumea eta lana, eta abar luze bat jorratu dute ikastaroetan, eta hamabi bat ikerketa ere egin dira, bai barruko dinamikaren baitan, baita kanpoko erakundeek eskatuta ere.

Bestalde, 'Emakumea eta Zinema' zikloaren bostgarren urtea bete da aurten. Ziklo horren helburua,

antolatzaileen esanetan, emakumeak duen ikuspegi desberdina azaltzea da, «gurendako ez bait da berdina emakumeek edo gizonek dutena, eta hori nabaria da zineman ez ezik arte osoan ere bai».

Guzti horri buruzko balantzea egiterakoan, oso baikor agertzen dira IPESeko pataideak, orain arte egin dako lanak, haien ustez, onspen zabal izan bait dute alde guztietatik. «Horren lekuko, urtez-urteko partaide kopuruak, beste Unibertsitateko Dokumentazio zerbitzuekin ditugun harremanak, eta Vianako Printzea Erakundea eta Emakume Institutoetatik jasotako onspena, ekintzei laguntza ematerakoan».

### Hamabost urtetako historia

1976an sortu zen IPES, arlo ezberdinetako profesionalen eskutik, eta giza ikasketak jende guztiarengana helarazi asmoz. Lehendabiziko ikastaroak San Franciscoko lokaletan izan ziren eta urte hartan hamahiru irakasle ibili ziren bertan, lau Ekonomia departamentuan, hiru soziologiakoan, eta bost historiakoan, gehi koordinatzaile pedagogiko bat. Garai hartako beren helburuen artean Euskal Unibertsitatearena zegoen, «bakoitzaren ideiekiko begirunearen gainean eraikita», eta asmoa bazuten Lizarra eta Tafallan zentruak sortzeko.

**1978-79:** ikastaro monografikoei ekin zieten, mintegiei begira, eta arloak ere aniztu ziren (feminismoa, sexualitate, psikiatria...).

**1979:** Euskal Herriko historiari buruzko lehendabiziko ikastaroa.

**1982:** Langaiak aldizkariaren lehendabiziko alea, 'Bimende eztabaidatu Nafarroako historian: guda karlistetatik foruaren hobeagozera'.

**1983:** Karl Marxen hilketaren urteurrena ospatzeko mintegia. Nafarroako eskualdeen astea.

**1984:** heziketa sexuala eskolatan aztergai Andraize eta Iruñeko udalekin batera antolatu ihardunaldietan

**1985:** Emakumearen Liburutegia eta Dokumentazio Zerbitzua sortzen dute, 400 alekin. 'Euskal Herria Europaren aurrean' izeneko ikastaroa.

**1986:** ESek, inkesta baten bidez, Euskal Herriko NATOren kontrako botoa iragartzen du.


**1987:** Emakumearen/z Zinemaren zikloaren lehendabiziko edizioa. Akordioa Nafarroako Gobernuarekin: bi milioi pezetako subentzioa.

**1988:** 'Sormen bideak', euskal idazle eta literaturzaileendako ikastaroa. Herrietan ikastaroak hasten dira.

**1989:** prostituzioari buruzko ihardunaldiak. Soldadutzaren aurkako jarrerari buruzko inkesta Argiarako.

**1990:** Euskal emakume poetei buruzko mintegia. 'Ekialdeko zorabioa' ikastaroa.

## Juanjo Olasagarre ..... poeta



**J**uanjo Olasagarre idazle arbizuar-  
rrak joan den hilean aurkeztu zuen  
Iruñean bere lehen poesia liburua,  
'Gaupasak' izenekoa. Bertan, gauaren  
giroaz baliatzen da desioa, herria eta

makina gauaz mintzatzeko, liburu trin-  
ko batean, Susa argitaletxeak argitara  
emandakoa. Poema liburu hau izanen da,  
nafar batek Durangoko Azokan aurkez-  
tuko duen bakarra.

## «Poesiaren sakralizazioa gezurra iruditzen zait»

A. BARANDIARAN / ARBIZU

**EGUNKARIA.**— Zergatik 'Gau-  
pasak'?

**JUANJO OLASAGARRE.**— Ez  
dakit, baina etxean nengoen  
egun batean etzanda, eta aurre-  
tik prestatuta nituen zenbait  
poemari izena jarri behar nion,  
gero antolatu ahal izateko. Eta  
herri honetan egiten diren hain-  
beste gaupasa zela eta, eta poe-  
mek ere horretarako beta ema-  
ten zutenez, ba, izena bururatu zi-  
tzaidan. Ez dakit, bidaia egiteko  
gauean, edo horrelako historia bat.  
Liburua ere horrela antolatu dut,  
gaupasa balitz bezala. Lehendabiziz,  
'Ispiluaren aurrean', gero 'Jantziak  
eta hatuak', eta ondoren 'Desioaren  
bideak', 'Desioak', 'Larruak' eta  
'Goizaldean'.

**EGUNKARIA.**— Poemak aspaldikoak  
dira edo honetarako prestatutakoak?

**OLASAGARRE.**— Ez, batzuk duela bi  
urte egindakoak dira, eta zenbait  
kendu egin ditut, ez zirelako ongi  
sartzen.

**EGUNKARIA.**— Baina hasi zinenean  
bazenuen asmoan gaupasen gaia edo  
gero atera da?

**OLASAGARRE.**— Ez, gero sortu zi-  
tzaidan gaupasen ideia. Horregatik,  
liburua antolatzeko zenbait poema  
moldatu behar izan dut. Gaua edo  
desioarekin edo egokitzen ez zirenei  
zenbait aldaketa egin dizkiet, baina,  
dena dela, batzuk nahiko bortxatuta  
daude gaupasaren gaiarekin.

**EGUNKARIA.**— Eta zergatik poesia  
eta ez, kasu, nobela?

**OLASAGARRE.**— Aldi berean zailena  
eta errazena delako. Errazena, apar-  
teko konstantziarik ez duelako eska-  
tzen. Egun batean poema bat egiten  
duzu, hurrengo egunean beste bat,  
eta gero zuzentzen dituzu, baina ez  
du eskatzen, nobelak bezala, egunero  
hiru ordu sartzea, eta jarraian egitea,



**G**aren euskaldunen-  
tzako idazle gehiegi da-  
go. Agian garaiaren  
ezaugarria da, jendea  
oso ezkorra bait da,  
asaldatuta dago, eta  
paperera botatzen ditu  
gauzak».

bestelaz haria galtzen delako. Poesia  
flash bat bezalakoa da. Idazten duzu  
poema bat, eta bolada pasa ondoren,  
zuzentzen duzu. Esaten dute poesia  
nobela baino zailagoa dela, baina  
lanaren aldetik, nobelak lan gehiago  
eskatzen duela uste dut. Dokumen-  
tazio handiagoa behar da, proiektu  
askoz handiagoa da. Gainera, poesia  
oso zaila delako kontu horretan nik  
ez dut sinisten. Nik uste dut mundu  
guztiak baduela zerbait esateko, eta  
batzuk ausartzen dira eta beste ba-  
tzuk ez. Gero lana da, beste lan mota  
bat bezala. Hori da, behintzat, nik  
dudan inpresioa. Poesiaren sakrali-  
zazio hori gezurra iruditzen zait.

**EGUNKARIA.**— Lehendabiziko kiri-  
kadan, zure poemak ez dira samurrak  
irakurtzeko. Pentsatu duzu zure in-

guruko jende askori, akaso,  
zaila izango zaiola irakurtzea?

**OLASAGARRE.**— Hori egia da,  
baina ez dut gehiegi pentsatu  
horretaz. Nik uste dut arazoa  
hor dagoela, egia dela, baina  
beste gauza bat da idazten has-  
ten zarenean zer sortzen den.  
Horretan ere 'kakeri mentala'  
deitzen dena oso arrunta da.  
Hau da, hasi hitz batekin, hortik  
beste batera, eta azkenean  
inork ententitzen ez dituen

poemak egiten dira. Neri ere, leitze-  
ko, gustatzen zaizkit horrelako gau-  
zak, eta batzutan besteen lanean sar-  
tzen sara eta bestetan ez, baina ez da  
lana ulertu behar. Nere kasuan ho-  
rrela suertatu da, agian horrela nai-  
zelako. Hala ere, poemak egitera-  
koan ez naiz zailtasun horretaz kon-  
turutzen. Gero bai. Liburu honetan,  
bai, zenbait poemak zailak dira, irudi  
gratuitoak ere bait dira, ez oso  
konkretuak. Saiatu naiz, baina, egu-  
neroko zenbait gauza sartzen, baina  
ez dakit lortu ote dudana.

**EGUNKARIA.**— Maiz esaten da poe-  
siak ez duela saltzen eta ez dela ira-  
kurtzen, baina idazle asko daude, li-  
buru franko argitaratzen dira.

**OLASAGARRE.**— Nik uste dut garen  
euskaldunentzako idazle gehiegi  
dagoela. Agian garaiaren ezaugarria  
da. Jendea ezkorra da, asaldatuta bizi  
da, eta paperera botatzen ditu gau-  
zak. Badago nolabaiteko norabide  
eza, nere ustez, eta hori eramanga-  
rriago egiteko, jendeak papera hartu  
eta idatzi egiten du.

**EGUNKARIA.**— Eta pentsatu al duzu  
inoiz horretaz bizitzea?

**OLASAGARRE.**— Gustatuko litzai-  
dake, baina badakit oso zaila dela.  
Gainera literaturaren mundua oso  
itxia iruditzen zait, ez zait gehiegi  
gustatzen. Asmoa dut, hala ere,  
gehiago idazteko, baina ez dakit zer-  
bait aterako den ala ez.

